

Gauero nire burumuinari

Antton Kazabon



Doinua: Amodioa gauza tristea

1. Gauero nire burumuinari
gogoeta bat dario:
Bizitza honek, gure bizitzak
ba ote duen balio.
Zorionikan txikina azkar
bihurtzen da kalbario,
irri egiten ahaztu zaigu,
noiznahi malkoak jario;
zerbait nahi nuke esan negarra
bihur dadin bozkario.
2. Orori jarri nahirik gabiltza
neurri estu ta zehatza,
baina argitik iluneraino
distantzi hori non datza?
Edo denontzat berdina al da
etsipena ta esperantza?
Eta pozetik atsekabera
nork neurtu hain bide latza?
Guztia baita muga ezina,
guztia baita neurgaitza.
3. Gorrototikan maitasunera
ez dago distantziarik,
biak batasun bat osatuaz,
biak konplize izanik.
Negarra eta irria, berdin
hain hurbil elkarrengandik,
nola bereizi handi ta txiki
edo txarra onagandik,
inor ez baita gaizki ta ongi
berdin bereizten duenik.
4. Abilak eta trebeak gara
ona txartzen, txarra ontzen,
handia dena txikitzen eta
txikia dena handitzen.
Batentzat ongi ta besteari
gaizki zaio iruditzen,
zenbat den asko, zenbat den gutxi
geuk dugu erabakitzen,
gero mundua nola dihoan
ez naiz batere harritzen.
5. Bizilekutik hilobiraino
hain da distantzia motza
pentsatu hutsez gelditzen zaigu
izozturikan bihotza;
halere goza nahian gabiltza
gure bizitza mingotsa,
eguzkialde nahi dugu baina
berez ez al da laiotza?
bizitzen hasi orduko presta
behar bat dugu heriotza.



6. Gure arteko distantzi denak
ezartzen ditu diruak,
dirurantz doaz gure bideak,
lanak eta helburuak,
dirurantz doaz gure errezu
eta gure erreguak,
bazterturikan gizontasunak
irentsi gaitu munduak,
basapiztien grinaren grinaz
galdurik bihotz-buruak.
7. Munduratzean argi berdina
du denontzat eguzkiak,
baina batzuri lainoek estal
ohi dizkiote izpiak,
batzuk bizitza garratza eta
begiak malkoz bustiak,
gutxi batzuntzat aberastasun
eta zorion eztiak,
nohiz heriotzak berriro ere
berdintzen gaitun guztiak.
8. Erreketako ur garden hura
usteldu zen betirako,
ta goizaldeko aire freskoa
kirasturik dago bapo,
gizonak elkar hiltzen ta hori
ez da gure onerako.
Hain aldrebesak zergatik ote
gara eta zertarako?
Txuri-beltzean dugun bizitza
kolorez nahi dugulako.
9. Nahiz zoriona ustegabeen
askotan diguten ohostu
badugu zertaz alaitu eta
zertaz irri, zertaz poztu;
maitasunaren alde eginik
bizitza hontan apostu
lortu daiteke zorion piskat
bihotza ez dadin hoztu;
pobreoi bide hori bederen
inork ezin digu moztu.
10. Gizonok sortzez ditugun muga
horietan errenditu
behar genuke, baina guretzat
horrek lan gogorak ditu.
Gure ezinak ta eskasiak
onartuko bagenitu
eromenezko ibilera hau
seguru baietz gelditu,
ta ilun dagoen bizipozaren
izarra baietz argitu.